

**IRAKASKUNTZA-GIDA**

2023/24

Ikastegia

160 - Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea. Arabako Atala

Zikl.

Zehaztugabea

Plana

GTRABA10 - Gizarte Langintzako Gradua

Ikastaroa

4. maila

IRAKASGAIA

25965 - Gizarte eta Komunitate Animazioa

ECTS kredituak: 6**IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA**

Animazio Soziokomunitarioa ikasgaia (aurrerantzean, ASK) 4. mailan kokatuta dagoen eta ikasturte osoa hartzen duen hautazko ikasgai bat da, Hautazkoen Moduluko eta SUSTAPEN KOMUNITARIOA delako ikasgai-multzoaren barnekoa (30 krd.).

Sustapen Komunitarioaren ikasgai-multzoak komunitate deiturikoari erreparatzen dio, eta bertan eta bertatik egindako gizarte egintzari. Esku-hartze globalaren ikusmoldetik, lokarri sozialak indartzeari buruzko galderei eta erei ematen zaio garrantzia formazio ibilbide honetan, izan ere, jakina den bezala, lokarri sozialek berebiziko garrantzia dute elkarbizitzarako espazioak eratzeko eta ekintza kolektiborako aukerak sortzeko.

Ikasgai honen abiapuntuko balorazioa da ASK behar-beharrezko ubidea dela Gizarte Langintza egiteko. Eta premisa horretatik, ikasgai honek lagundu nahi du Gizarte Langintzarako trebetasunak eskuratzen jarraitzeko; eta baita, nahikoa ikuspegi kritikoarekin, identifikatzen eta errekonozitzen talde, entitate zein mugimendu sozialek piztu ditzaketen ekintza-moldeak beraien helburuetara hurbiltze aldera.

Harremana dauka ikasgai honek moduluko beste hauekin: Baztertze eta Gizarteratze Mekanismo eta Prozesuak, Gizarte Partaidetza eta Komunitate Garapena, Genero Berdintasuna, Babes Juridikoa eta Zaurgarritasun Egoeretan. Eta, bestalde, harreman estua dauka ere Komunitate Gizarte Langintza ikasgaiarekin.

Ikasgaiaren gai ardatzak dira: Aisia eta denbora librearen kontzeptua. Boluntariora. Animazio soziokomunitarioaren ibilbide historikoa. Ekolurraldea. Metodologia. Bitartekoak eta teknikak sentsibilizazio, dinamizazio eta komunitatea inplikatzen.

GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK

Garatzeko gaitasunak:

- Ezagutzea, ulertzea eta aplikagarritasuna bilatzea ASKren inguruko enfoke, eredu eta metodologiei.
- Norbere esperientziak eta ezagutzak aintzat hartuz, langai diren arlo eta gaiak jorratzea eta elkarrekin integratzea, horretarako aurrez, informazio esanguratsua eskuratzeko, aztertze eta sintetizatze gai izanaz.
- Pertsonak, taldeak eta komunitateak suspertzeko, indartzeko eta garatzeko mesedegarri diren bitarteko teorikoak eta praktikoak errekonozitzeko gaitasuna.
- Arloan arituei, nahiz arlotik kanpokoei, informazioa, ideia, premia eta irtenbideak era argian eta koherentean adierazteko gaitasuna, ahoz gora zein idatziz, eta dagokion hizkuntza zuzen eta egokitasunez erabiliz.

Esanaz batera, garapen komunitarioaren enfokearekin animazio soziokomunitarioa ahalduzko personal eta kolektiborako bitarteko gisa ulertuta, animazio soziokomunitarioan diharduten agente aniztasunaz ohartzea funtsezkoa da, eta baita esku-hartze komunitarioan sare lanaren garrantziaz konturatzea ere.

Hartara, ondorengoak dira jorratu nahi dituen gaitasun zehatzak:

- Animazio Soziokomunitarioa (aurrerantzean ASK) ingurune sozialetan esku hartzeko bide eta gizarte langintza egiteko era bezala ulertzea.
- ASKren oinarri teorikoak eta orientazio ezberdinak ulertzeaz batera, arloaren barneko aniztasunaz ohartzea eta ASK bideratzeko bitarteko edo ekinbideak ezagutzea.
- Era eta espazio ezberdinetatik sortutako ekimen kultural-artistikoen (antzerkia, musika, bertsolaritza, etc) ASK-ko duten balioaz ohartu eta bistaratu.
- Ikasgaiaren jorratuko diren irakurgai eta ariketen bidez eskuratutako ezagutzak lan teoriko-praktikoetan egituratzea, gaitasun erreflexibo eta sortzailea erakutsiz.

IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK

Ikasgaiaren bukaeran ikaslea gai izan behar luke:

- ASKren oinarriak eta funtsezko ezaugarriak ezagutzeko eta komunitatearen garapenerako ekimenak eta dinamikak identifikatzeko lurralde batean.
- Irizpide teorikoak eta praktikoak aplikatzeko, eta baita aztertze eta hausnartzeko animazio soziokomunitarioaren bitarteko inguruan.



- Ezagutzeko ASKrako ubide eta ekinbideak arakatzeko.
- Ekinbide zehatz bat miatzeko eta jorratutakoa idatziz zein jendaurrean egokitasunez azaltzeko.

EDUKI TEORIKO-PRAKTIKOAK

- Gaitegia bat dator ANECAk onartutakoarekin Gizarte Langintzaren titulazioaren Memoria egiaztatuan (2010)
- 1.gaia: Aisialdiaren eta denbora librearen kontzeptua beraien eragin soziokomunitariotik begiratuta.
 2. gaia: ASKren bilakaera historikoa gizarte zerbitzua eratze bidean.
 3. gaia: Ekolurralde: eremu fisikoa, ekipamendua, herritarren soslai egokia animazioa eta komunitatearen garapenerako.
 4. gaia: Metodologia: Prozesua. Bolondresak: ezaugarriak eta erakartzeko estrategiak.
 5. gaia: Komunitatea sentsibilizatzeko, dinamizatzeko eta inplikatzen komunikazio bitartekoak eta teknikak.

METODOLOGIA

IKASKUNTZARAKO METODOLOGIA:

Ikasgaiaren edukiak eta gaitasunak jorratzeko, metodologia aktiboak baliatuz, ikaslearen lan autonomoarekin batera (informazio bilatzeko, lantzeko eta agertzeko), gelako saioak mintegi eta tailer eran antolatuko dira; aurrez hitzartutako gaien inguruan elkarri azalpenak eman eta ikuspuntuak trukutzen trebatzeaz gain, ebazteko kasuekin egingo da lan.

Norberak eta taldean egindako lana, biak dira beharrezkoak ikasgaiari lotutako gaiak eta gaitasunak jorratzeko. Saioak elkarren artean eta nork bere erantzukizunarekin antolatuko dira, eta irakasleak koordinatzaile eta laguntzaile eginkizunetan arituko da nagusiki.

Ikasgaiaren gaitegiak seinalatzen dituen gaiak eta adostutakoak kontuan hartuta, hainbat irakurgai eta iturri erabiliko dira hurbilpen kontzeptuala eta esperientziala egiteko. Horretarako bide izango dira ere egingo diren bisitak eta hitzaldiak.

Elkarri azalpenak emanaz, batzuek eta besteek esanak jasoaz eta harremanetan jarriaz norberarena osatzea posible egiten duten dinamiken bidez bideratuko dira saioak . Norberaren lan autonomoaz gain, taldean eraikitakoa jasoaz ezagutzak sortzea eta zabaltzea da tailer bidezko ikaskuntzarekin lotu nahi dena.

Helburu horiekin, gaitegiaren lanketarako ondorengo jarduerak ohikoak izango dira:

>> Gelakideei azalpenak (magistralak zein bestelakoak)

>> Gelako praktikak

>> Testuak irakurtzea, aztertzea eta sintesi lanak egitea. Testuen edukien gaineko azalpenak ematea (banaka nahiz taldeka) eta bateratze lana egitea.

>> ASKREN arloko dokumentu, proiektu eta esperientziak bilatzea, arakatzeko eta elkarri azaltzea. Bisitak eta hitzaldiak ere egingo dira ikasturtean zehar.

>> ASKrako proiektuak eta bitartekoak diseinatzea.

>> Ikaslearen lan autonomoa

>> Diseinatzea eta garatzea azalpenezko dokumentua (bloga edo bestelakoa) bertan txertatuz iruzkinak testuenak, bideoenak edota bilatutako beste dokumentuenak.

IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak	45		15						
Horas de Actividad No Presencial del Alumno/a	67,5		22,5						

Legenda: M: Magistrala

GL: Laborategiko p.

TA: Tailerra

S: Mintegia

GO: Ordenagailuko p.

TI: Tailer Ind.

GA: Gelako p.

GCL: P. klinikoak

GCA: Landa p.

EBALUAZIO-SISTEMAK

- Ebaluazio jarraituaren sistema
- Azken ebaluazioaren sistema



KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Banakako lanak % 50
- Talde lanak (arazoen ebazpenak, proiektuen diseinuak) % 50

OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

EBALUAZIO SISTEMA JARRAITUA eta AZKEN EBALUAZIOAREN SISTEMA:

EBALUAZIO SISTEMA JARRAITUA

- Beharrezkoa da eskolorduetan izatea (saioen %80an) irakaskuntza kolaboratiboan oinarritutako irakaskuntza-bidea jarraituko baita, eta era horri jarraiki, garrantzia emango zaie gelako praktikei (testuen irakurketak partekatzea, hizketaldiak eta eztabaidak egitea, etc). Horrez gain, derrigorrezko saioak izango dira seinalatutako zenbait egun –lanak aurkezteko egunak, hitzaldi edota bisita egunak, norbere lan autonomoa ikaskideekin partekatzeko eguna, etc-
- Lan ezberdin guztiak aprobatu behar dira ikasgaia gainditzeko.

Ondorengoak dira egin beharreko lanak -Zehaztasun gehiago ikasgaiaren Egelan-:

- Banakako lanak: %50 (arlor hurbilpen teoriko-enpirikoa egiteko lan idatziak eta gelako praktiken txostena)
- Talde lanak: %50 (ariketak, kasuak edota erronkak prestatzea eta gauzatzea)

Ikasleak eskubidea du azken ebaluazio bidez ebaluatua izateko, etengabeko ebaluazioan parte hartu zein ez hartu. Horretarako etengabeko ebaluazioari uko egiten diola jasotzen duen idatzi bat aurkeztu beharko dio irakasleari kurtsoaren 18. astea baino lehenago, ikastegiko eskola egutegian ikasturtea hasten denetik kontatzen hasita.

Lanok kalifikatzeko baloratuko dena da:

- Lanaren itxurari dagozkion baldintzan betetzea.
- Eskatutako atal guztiak garatzea, nahikoa eduki eta elkarloturarekin.
- Azalpenen eta iruzkinen aberastasun eta sakontasun maila
- Idazkuntzaren zuzentasuna, erregistro egokitasuna eta koherentzia.
- Txosten akademikoen idazkuntza baldintzak betetzea, nagusiki informazioaren iturrien aipamenari dagokionean. Zuzentasun ortografikorik eta gramatikalik nahikorik gabe idazteak ikasgaia suspenditzea dakar.

AZKEN EBALUAZIO SISTEMA:

- AZTERKETA -%50- eGelan jarritako dokumentuak landu beharko dira amaierako ezagutzen frogarako. Egindako lan ezberdinen langaiak ere izan daitezke azterketako galdera.
- LANAK -%50-eGelan eta irakaslearekin tutoretzan zehaztutakoak-

Biak gainditu beharko dira ikasgaia gainditzeko.

Azterketara aurkeztu ezean ebaluatzeari uko egiten zaio.

Ohiko deialdian gainditu ezean, ez ohiko deialdirako gordeko dira gaindituta dauden lanen (edo azterketaren) notak, baina ez hurrengo ikasturtean.

COVID-19 dela-eta irakaskuntza eta ebaluaketa aurrez aurre ezin bada egin, eGela izango da hartuemanetarako gune nagusia, bideokonferentzia eta bestelako bitartekoak erabiliz ikasgaiari dagozkionak lantzeko, ebaluazio bide jarraia edo ez-jarraia izanda.

Ebaluaketarako lanak eta azterketak egiteko ere, eGela baliatuko da modu ez-presentzialean aritzea tokatzen bazaigu. Kasu honetan ebaluaketarako lanak eta azterketa-froga teoriko-praktikoak eGela bidez jarriko dira, ohiko zein ez-ohiko deialdirako aurreikusitako egun eta ordutan.

"Ebaluazio jarraituaren kasuan: "deialdiari uko egin nahi dioten ikasleek kasuan kasuko irakasgaiaren irakaskuntza aldia bukatu baino, gutxienez, hilabete lehenago egin beharko dute eskaria. Eskari hori idatziz aurkeztu beharko zaio irakasgaiaren ardura duen irakasleari" (12.2 art).

Azken ebaluazioaren kasuan: "azterketa egun ofizialean egin beharreko probara ez aurkezte hutsak ekarriko du automatikoki kasuan kasuko deialdiari uko egitea" (12.3 art).

"Normalean, eta besterik adierazi ezean, UPV/EHUko ebaluazio probetan ikasleek debekatuta izango dute liburuak, oharra edo apunteak erabiltzea, bai eta tresna edo gailu telefoniko, elektronikoa, informatikoa edo bestelakoak erabiltzea



ere. (3. puntua, 5. or.).

"UPV/EHU honako hauek joko dira jokabide makur edo iruzurrezkozat ebaluazio probetan edo ebaluatu beharreko lan adademikoak egitean eta aurkeztean: Lanak plagiatzea, hau da, inoren lanak kopiatzea jatorria edo iturria aipatu barik eta norberarenak balira bezala ematea ebaluazio akademikorako aurkezten diren testu edo lanetan" (2.a. puntua).

EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Ohiko deialdian Ebaluazio Jarraiko talde lanak gainditu ezean, ezohiko deialdirako lanak, irakaslearekin hitzartutakoaren arabera, bakarka egitekoak izango dira, eta ohiko deialdiko notaren errebisiorako hitzorduan zehaztuko da bakarkako lan horien nolakotasuna.

Gainerako baldintzak ohiko deialdiko berak dira, eta honetan aldaketarik balego, eGela bidez jakinaraziko da.

NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

eGelan jarritako dokumentuak dira landu beharrekoak ikasgaiaren edukiak lantzeko.

BIBLIOGRAFÍA

Oinarrizko bibliografia

- Alonso, M.J., Alonso, I., Martinez, B., Rekalde, I. (2014). Propuestas metodológicas generales de intervención y en situaciones de exclusión. Open Course Ware de la UPV/EHU: Departamento de Didáctica y Organización Escolar, eskuragarri: <https://ocw.ehu.eus/course/view.php?id=175>.
- Ander-Egg, Ezequiel (1997): Metodología y práctica de la ASC. Buenos Aires. Humanitas.
- Barbero, Manel eta Cortés, Ferrán (2005): Trabajo comunitario, organización y desarrollo social. Madril. Alianza Editorial.
- Cerdá, R., Cerdá, P. eta Cerdá, M.R. (2005): Animación cultural: servicios socioculturales y a la comunidad. Barcelona. Altamar.
- Cuenca, Manuel (koord) (2012): Aisiazko ikaskuntzak hainbat ikuspegitatik. Bilbo. Deusto Unibertsitatea.
- Escarbajal, A. (1992). La animación sociocultural como instrumento para el desarrollo comunitario. Anales de pedagogía, 10, 87-106.
- Froufe, S. (1998). Técnicas de grupo en Animación Comunitaria. Salamanca. Amarú.
- Joxemi Zumalabe Fundazioa (2014): Dabilen harriari goroldiorik ez. Eskuragarri: <http://joxemizumalabe.eus/liburuak/DHGE-1.pdf>
- Lobato, Clemente (1991): El animador sociocultural: personalidad, creatividad y valor. Servicio Publicaciones Gobierno Vasco. Vitoria-Gasteiz.
- Marchioni, Marco (2004). La acción social en y con la comunidad. Zaragoza. Certeza.
- Martín, Teresa (2000): Economía Social y animación sociocultural. Sanz Torres Argitalpena.
- Peres, A. eta Cid, X. (2007): Educación social, animación sociocultural y desarrollo comunitario. Universidad de Vigo.
- Pérez, Cruz (koord) (2012): La acción educativa social: nuevos planteamientos. Desclée de Brouwer. Bilbo.
- Pérez Serrano, Gloria eta Pérez de Guzmán, M^a Victoria (2006): Qué es la animación sociocultural. Epistemología y valores. Madrid. Narcea .
- Placer, Félix (1991): Animación sociocultural y educación. Servicio Publicaciones Gobierno Vasco. Vitoria-Gasteiz.
- Sarrate Capdevila, María Luisa (2014): Programas de animación sociocultural. Universidad Nacional de Educación a Distancia, Madril. Eskuragarri: <http://eduso.files.wordpress.com/2008/06/animacion-sociocultural.pdf>
- Susmoa (2009): "Putzuak zapaltzen". Bilbo: Baladre.
- Ucar, X. eta Llena, A. (2006): Miradas y diálogos en torno a la acción comunitaria. x
- Ventosa, Victor J. (2002): Fuentes de la animación sociocultural. Madril. CCS Editorial.
- Ventosa, Victor J. (2016): Didáctica de la participación. Madril. Narcea.
- Trilla, J. (Koord.) (1998): Animación Sociocultural. Teorías, programas y ámbitos. Barcelona. Ariel.
- ‘Aktibazio komunitarioa eta auzo-elkartasuna. Joerak eta jardunbide egokiak’; https://www.gipuzkoa.eus/documents/2074513/2160241/010_Txostena_Aktibazio_komunitarioa_eta_auzo_elkartasuna.pdf/eb0d3b54-7dab-e70c-cd99-d094c45a4832

Gehiago sakontzeko bibliografia

Federici, Silvia (2019). Mundua berriz liluratuz. Feminismoa eta komunen politika. Iruñea: Katakarak Liburuak.

Mitxeltoarena, Jasone (2011). Auzolanaren kultura. Tafalla: Txalaparta.

Aldizkariak

Intereseko informazio-iturriak:

CEAC Iniciativas sociales en educación
Cuadernos de Acción Social
Cuadernos de realidades sociales
Cuadernos Técnicos de Estudios y Documentación
Documentación Social, zbk. 70



Dossiers Associatus. Barcelona
Educar , 13.zbk ,(105-116. or.)
Educadores
Educar en el tiempo libre
Fundación EDAE
EDE Fundazioa
ESTRIS
Intervención Socioeducativa
Monitor Educador
Pedagogía Social <http://www.peretarres.org/revistaeducacionsocial/>
Rev. Bonagent
Rev. Aula. Rev. de Enseñanza e Investigación Educativa, 6. zbk, 161-183 (1994)
Rev. Aula Abierta, 68. zbk, 38-48 or.
Rev. de Intervención Psicosocial
Rev. De Universidades Populares
Rev. Interuniversitaria de Tª de la Educación,6. zbk, 161-183 (1994)
Rev. de Serveis Educatius i per l'Animació Socio-cultural
Rev. Intervención Psicosocial

Interneteko helbide interesgarriak

CIMAS (2010): Manual de metodologías participativas (Eskuragarri: www.redcimas.org)

- Aktibazio komunitarioa eta auzo-elkartasuna. Joerak eta jardunbide egokiak
https://www.gipuzkoa.eus/documents/2074513/2160241/010_Txostena_Aktibazio_komunitarioa_eta_auzo_elkartasuna.pdf/eb0d3b54-7dab-e70c-cd99-d094c45a4832

- <https://alea.eus/gasteiz/1619548648699-eragiteko-janzten-herritarrak-euskara-hizkuntza-aktibazioa-gakoak-prozesuak>

- <https://alea.eus/gasteiz/1617382851118-gasteizko-euskara-komunitatea>

OHARRAK

Garrantzitsua da oso ikasgai honek eGela plataforman duen gunea sarri errebisatzea, bertan jarriko baitira ebaluazio sistemari buruzko azalpenak, beharrezko materialak, testu osagarriak eta argibideak (foroetan jarritakoa ere errebisatu). Hori horrela, garrantzitsua da ere eGela errebisatzea programazioan edo ebaluazioan gertatu daitezkeen aldaketen berri izateko, eGelan argitaratuko araberaren egingo baita ebaluazioa.

Lan idatzi guztiei idazkuntza zuzenaren irizpideak betetzea eskatuko zaie. Oro har esanda, arloko hizkera erabiltzea eta ideiak antolatuta eta era ulergarri eta argian idatziak egotea; hori guztia gramatika eta ortografia arauak beteaz. XUXEN zuzentzaile ortografikoa erabiltzea gomendatzen da (<http://xuxen.eus/es>)

Baldintza horiek, nahiz txosten akademikoen oinarriko baldintzak, betetzen ez dituzten lanak atzera botako dira eta EZ AURKEZTUA bezala kalifikatuko dira.